



# HITZA ARGAZKI LEHIAKETAREN 8 FINALISTAK

Guztira 65 argazki bidali dituzte irakurleek VIII. Hitza Argazki Lehiaketara; harpidedunen esku dago orain erabakia >4-5

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Igandea  
2008-09-21**

VI.URTEA 1.514.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Atzokoan Haur eta Gazteen Eguna izan zen; eguerdi aldera sokadantza dantzatu zuten. ESTI EZBIZA

## ZAPIA LEPOAN GAZTEAK PROTAGONISTA

**IRURA** Gaur Gorritiren abereak izango dira plazan eta Mari Jose Sardonek marka saiakera egingo du arratsaldean 6

### Garagardo Azokan ere herri kirolak bere tartearen izan du

**TOLOSA** Arria V, Arrospide eta Nazabal Urrezko Aizkoraren saioan aritu ziren Trianguloan 7



Jende ugari bildu zen Trianguloan Urrezko Aizkora ikusteko. ESTI EZBIZA

### EAE-ANVren eta EHAKren ilegalizazioa salatzeko jende ugari bildu da

**TOLOSA** Manifestazioa egin zuten herriko kaleetan «regoera salatzeko» 7



# EGUZKILORE

[www.eguzkilorejya.com](http://www.eguzkilorejya.com)

*Eguzki*

DONOSTIAN Hermani 13, Alderdi Eder Tel. 943 43 15 58  
GALDAKAOAN eta AMOREBILIAN Tel. 94 673 18 31

» **Uzturretik**

Andu Martínez de Rituerto

**B**ai, badakit honez gero batzuk ia ahaztuta izango duzuela Leirek eta Xabierrek Txinako lur (eta itsaso) urrun haieran egindako balentria. Kontua da, ez nuela txoko honek eskaintzen didan aukera galdu nahi eskualdeko kirolari hauek egindakoa goraiatzeko. Edozein kirolariarentzat olinpiadetara joan ahal izatea lorpen ikaragarria da, estatu bakoitzeko hobereen arteko hobereenak bakarrik baitozaz. Lehen postuetan gelditzea amets bat eta dominaren bat lor-

ztea zerua ukitzea. Zorionak beraz, eta lortutakoa balio diezazuela indarrak pilatzeko eta egin duzuen eta egin beharko duzuen esfortzu guztia (entrenamenduak, bidaiak, denbora luzea maite dituzuenengandik urrun, lesioak...) goxatzeko.

Olinpiaden harira, komunikabide gehien eta batez ere telebistako esatarien jardunaz aipamen batzuk: dominen bueltan ez zebiltzan kirolarien jarduna porrota zen kazetari gehienentzat. Goi mailako kirolari baten betebarra, bere lana ahalik eta txukunen egitea da: egin beharreko entrenamenduak burutu, elikadura zaindu, behar duen atsedena hartu... bere jarduna hobetzen lagunduko duten alderdi guztiak zaindu azken finean. Hori egiten duen kirolariari ezin

zaio porrotaz hitz egin, berak bere esku zegoen guztia egin du bere ahalmenak punturik gorenera eramateko eta lehiaketan bere maila emateko. Lehiaketetako emaitza ez dago kirolariaren esku bakarrik; kirolariak kontrola ezin ditzakeen aldagai ugariak garrantzi handia dute. Kirolaren arabera aldagai hauek desberdinak badira ere hona hemen horietako batzuk: aurkariaren maila, eguraldia, epailen lana, jolas eremuaren baldintzak, osasuna... eta nola ez, zortea.

Arestian esan bezala, kirolariak bere ahalmena hobetzeko bere esku dagoen guztia egitea da bere beharra (beti ere arauak errespetatuz noski), irabazterekin itsutzen bada, frustrazioaren bidea urratzen hasiko da. Goi

mailako kirolean ideia honek garrantzia badu, zeresanik ez gazteen eta afizionatuen artean. Gazteek eta afizionatuok gogo guztia hobetze pertsonal horretan jarri beharko genuke, eta lehiatzen garenean, geure buruak eman dezakeena ematen saiatu behar dugu, ez gehiago, eta ez gutxiago; lehiaketak berak gure tokian jarriko gaitu. Presente izan behar dugu garaienaren bidea lanean eta hobetze pertsonal horretan oinarritzen dela, ez beste inon. Baina ez ahaztu kirola egiten dugun gehienentzat garaipena ez dela garrantzitsuena; jokoarekin eta lagunekin ondo pasa, erronka pertsonalei aurre egin, osasuna hobetu... oreka pertsonala lortu, lirateke motibazio handienak.

**Laburrak****Kultur tailerretan parte hartzeko izen-ematea**

**TOLOSA** • Udaleko Kultura sailak antolatu dituen kultur tailerretan izena eman nahi dutenek aukera izango dute aste honetan bertan. Hain zuzen, bihartik ostiralera bitarte eman dezakete izena, iaz ikasle izandakoek aurreko astean eman dutelarik.

**II. Barazki eta Animalien Azokarako izen-ematea**

**ALEGIA** • Heldu den urriaren 19rako, igandearekin, antolatu duten II. Barazki eta Animalien Azokarako izen-ematea zabaldu du dagoeneko Udalak. Interesatuek Alegiako Kultur Etxean bertan eman dezakete izena. Hau guztia beharrezkoa izango da, egunean bertan zer material beharko den zehaztu ahal izateko.

**Komikia****Gorka Salaberria**

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**  
zerbitzu iraunkorra

**BULEGOAK:** Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

## I. Ikerketa beka



» Iritzia

**Josebe Iturrioz**  
Berdintasun Eragilea

**D**akizuenez, Tolosako Udaleko Berdintasun Zerbitzuak I. Ikerketa Beka «Emakumeek Tolosako Historiari Egin-dako Ekarpenak» plazaratu

berri du. Askotan, berdintasunean lan egiten dugunok mila azalpen eman behar ditugu pauso txiki bat ematen dugunean eta horrelako galderei erantzun beharrean aurkitzen gara askotan: «Baina, emakumeei buruzko ikerketa beka bat. Zertarako?» Galdera honi erantzuteko joko bat proposatzen dizuet. Sari bat emango diot gure historian garrantzia eduki duten 10 emakumeen izenak esaten didanari.

Lasai, normala da, asko jota bi izen burura etortzea. Gehiengotan gainera, bi edo hiru izen go-

goratu arren, ez dakizkigu oso ondo zeintzuk izan diren beraien ekarpenak. Esate baterako, ea zenek esan dezakeen zein izan zen Kleopatraren ekarpen handibat? Hori esan eta seguraski Julio Zesar eta Marko Aurelio izenekin hasten den esaldi bat entzuten duzuela. Kleopatraren amoretan zerrenda alde batera utzita, bakarrik aipatzea, oso ezaguna zela Kleopatrak hizkuntzetarako zeukan erraztasuna eta diplomatiko bezala zuen arrakasta. Gainera, Kleopatrak medikuek XI. mendera arte erabili zuten obstetrizia (umeak er-

ditzen laguntzen duen diziplina) tratatu garrantzitsu bat idatzi zuen. K.a 60. urtetik 1000 urtera arte ezinbestekoa izan zen tratatu bat. Honekin argi gelditzen da, askotan emakumeen izenak ezagutu arren, gehiengoetan beraien ekarpenak ere gutxienak direla.

Zure herrian hori ere gertatzen da, emakumeen ekarpenak ez dira ezagutzen eta egin dituzten ekarpenak gutxietsi egin dira. Horregatik plazaratu dugu Tolosako historiari emakumeek egindako ekarpenak ikertzeko beka bat. Ikerketa beka honek

9.000 euro eta 12 hilabete eskaintzen ditu ikerketa garatzeko. Edonork aurkeztu dezake bere burua. Ikerketa bekaren oinarrietan argitzen den moduan gehienez 15 orriko egitasmo bat idatzi behar da eta irailaren 30a baino lehenago Tolosako Erregistroan, Udaletxean, entregatu. Hemen daukazue behar duzun informazio guztia: <http://berdintasunatosakoudala.blogspot.com/> edo bestela 943 654466 telefono zenbakira deitu eta Berdintasun Zerbitzuarengatik galde-tu.

Animatu!

### B Blogteka info

#### Krisi ekonomikoaren aurka borroka iraultzailea!

Juan Jose Ibarretxe modu berezia dauka krisi ekonomiko definitzeko. Bere ustez, arazoak dakartzan garaia da, baina baita aukera onak ekartzen dituen ere. Benetan harrigarriak edo lotsagarriak bere hitzak. Eusko Jaurilaritzak nahiko lidergo eta ideia onak omen ditu, gainera, krisiari aurre egiteko. Bai noski, Eusko Jaurilaritzaren eta EAJ-PNVren errezeta langileak oraindik eta gehiago zapaltzea da.

Krisirik ez zegoela esaten hasi zitzaizkigun, ondoren okerreana pasata zegoela eta orain gauzak gehiago okertuko direla datoen hilabeteetan. Zuzenketa mekanismo batzuk nahikoa izango omen ziren? Ustekabeak? Arazo ekonomikoak konpontzeko. Baina banku suitzarreko adituek agerian utzi zuten nolako panorama ari den garatzen. Egin zuten informearen arabera, ekonomia estatubatuarra atzeraldian sartuko da hurrengo hilabeteetan eta europarrak berriz geldiagotze indartsu bat izango du.

Ez ziren aditu hauek bakarrik izan abuztuaren arduratuta agertu zirenak. Abuztuaren hasieran, Michael Glos Ekonomia minis-

tro alemaniarrak eta Christine Lagarde Ekonomia ministro frantziarrak adierazi zuten hirugarren hiruhilekoan zailtasunak izango zituztela euren estatuetako ekonomiek. Baina esan behar da zailtasunak ez zirela etorkizuna, oraina eta iragana baizik. Iraila hasi bezain laster, jakin zen lehen aldiz 1995etik eurozonako BPGa zerbaki gorritan erori zela. Europako Batasuneko «motorra» den ekonomia alemaniarrak eragina izan zuen atzerapen honetan. Lau urtetan lehenengoa aldiz %0,5 jaitsi zen BPG lehen hiruhilekotik bigarrena. Alemaniarraren moduan, ekonomia frantziarra ere %0,3 jaitsi zen bigarren hiruhilekoan.

Munduko bigarren potentzia ekonomiko den Japonen ere, ez daude berri onak. AEBetako subprime hipotekek sortutako krisitik libratuko zela uste zuten ekonomialari batzuk, baina BP-Gren datuek diote Japon krisian sartu dela. Aurtengo urtea hasi zenetik ekonomia japoniarra gainbeheran da eta atzeraldiaz hitz egiten ari dira dagoeneko.

Ingalaterrako bankuko azpi-gobernadore Charles Beanek ere gutxi du baikortasunik. Bere arabera, «krisiak denboraldi handi bat iraun dezake» eta

«merkatuak errekuiperatzen hasten direla ematen duenean beste granada batek egiten du eztanda». Hitz hauek ondo erakusten dute egoeraren larritasuna. Banku zentralen arduradunen konferentzian, Beanek aitoritu egin behar izan zuen iragan urteko krisi finantzarioa zorte pixka batekin denbora gutxian gaitzitu zela uste zuela. Baina usteak erdia ustel. Orain, ekonomia britainiarra ere arazotan da. (...)

(...) Langileen alderdi eta sindikatuak zuzendaritza erreformistak kondenatuta daude euren oinarri sozialak traizionatzea eta kapitalismoaren salbataile izatera. Erreformismoarekin hausten ez dutenak, burgesiarekin kolaboratzea eta kapitalismoa konpontzea posible dela uste duten agintari politiko eta sindikalak, ez dira egongo garai berriek eskatzen duten mailan. Klaseen arteko borroka gogorra emateko baldintza guztiak ari dira pilatzen eta egoera honetan beharrezkoa da langile klasearen erakundeez bide iraultzaile bat defendatzea, batik bat sindikatuak, behin betiko kapitalismoarekin bukatzeko. (...)

**Euskal Herria Sozialista aldizkaria**  
<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/euskalherriasozialista>

### E Eztabaida info

#### Iruran Kilometroak 2008, urriaren 5ean. Joateko asmorik ba al duzu? Zergatik?

■ **Haritz.** «Noski joango naizela. Urtero joaten naiz eta aurten etxean izanda ezin da jaialdia galdu. Oso inportantea iruditzen zait Kilometroetan parte hartzea, herriak egiten du posible horrelakoa».

■ **Amaia.** «Ez dut uste joango naizenez, beste konpromiso bat daukadalako. Azken aldiz Oiarzunen egon nintzen Kilometroak-en eta ondo pasa nuen. Aurten ere joango nintzateke, ez pentsa, baina ezinezkoa izango zait jutea. Joateko aukera dutenek, asko gastatu dezatela ikastolek behar dute eta!!!».

■ **Aitor.** «Niri zurikeria galanta bihurtzen ari dela iruditzen zait. Pena bat da baina lehen militantzia eta lana zena orain ez dago. Egunean hor azaltzen dira politikari guztiak euskararen beharraz hitz egiten baina gero bestalde batetik hor ari dira gure hizkuntza jipoitzen...».

■ **Eneko.** «Nik juergatxo majo bat botakoet nere lagunekin, lehengo urtean ezin izan nuen joan Bergarara eta aukera hau ondo aprobetxatu nahi dut. Euskara eta parranda bateratzea ez da batere plan txarra».

■ **Eider.** «Ni ez naiz joango, hainbeste jende... ez zait gustatzen».

### Z Zurea da hitza info

#### Kokaina alijo handia topatu dute Arzabalzako pabilioi batean

**Tolosa** » Bi gazte tolosar atxilotu omen ditu Espainiak Polizia Nazionalak eginko operazioan.

#### HERRITAR BAT

Aurreko astearen erdialdean Polizia Nazionalak Arzabalzako pabilioi batean kokaina alijo handi bat harrapatu zuela kontatu didate. Ehundaka kilo jaso eta bi gazte tolosar atxilotu omen zituen. Egunkarietan ez dut horren berririk jaso eta harrituta nago.

■ **Baserritarra.** «Nik ere entzun dut albiste hori: hainbat egunetan Guardia Zibilak prezintatua egon da Arzabalzako «arkupeetan» dauden saltoki hoietako bat. Hori neronek ikusi dut, eta entzun dudanez droga-kontua zebilen tarteko. Hortik aurrera nik besterik ez dakit.»

■ **Erantzuna.** «Eta zergatik ezkutatua behar zuten komunikabideek?».

### H Hilberriak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldekohitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldekohitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

#### JUAN MARI GARMENDIA ARTEAGA



Etzeko saminarekin bat egiten dugu

Intxurre KKE futbol taldea

BALIARRAINEN  
2008ko irailaren  
20an

# ZEIN DUZU GUSTUKOEN?



Gozatu ACBrako Igoerarekin

**BRUESA GBC**  
TAU BASKONIA

ASTEARTEA • irailak 23:20:00 etan

**VII. Hitzaz Argazki Lehiaketa** » Datorren igandearen argitaratuko du HITZak irabazlea harpidadunek emandako botoei esker.

**EREDAKAZIA**

**K**risia gora eta behera, guztion ahiztan dabil: azken hilabeteetan, baina uda honetan merezitako oporraldia ondo aprobetxatu duenik ere bada gure eskualdean. Euzko Hiria bertatik heldu diren argazkiak ere ederrak izanagatik, finalera heldu diren argazkilarik gehienetsuenek kanpoko herritakoak aukeratu dituzte aurtengian.

Hala, Norvegia, New York, Kuba, Senegal, Alacant, Berlin edota Mozambik bezalako herritakoak irudi ederrak izan dira. Hitzaren epaimahaiaren ustetza, finalen egotza merxezi izan duten argazkiak. Landetaik eta Donostiaik bertatik ere bidali dizkigute argazki ederrak, berriz, lehiaketaren azken txanpara helteko zeroz dutenak. Hauetan paisaiak, giza, naturaren edertasuna ageri dira.

**Zortzigarren ez, arrakastakua**  
Guztira 65 argazki heldu dira hiruraste hauetan zehar Hitzaz Argazki Lehiaketara. Zortzigarren edizioa izan da aurtengoa eta urteaz urte jendearen parte-hartzea gorantz doa. Parte hartu baina irabazi ez dutenek ere izango dute aukera datorren edizioan eta sarri interesgarriak irabazteko aukerarekin, gainera.

**TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA**  
Hitzak eskaintzen dituen sariak ere ez dira nola nahikoak. Harpidedunen aldetik boto gehien lortzen dituenek, aste-hiru bat irabaziko du Amoroetako Altuenan landetxean, bi lagunentzako egonaldia. Bigarren sarririk ez bada ondo aserzko aukera izango du, Tolosako Beti Alai jatean bi lagunentzako bazkaria edo afaria irabaziko baitu. Eta hirugarren postua eskarizten duena ere ez esku hutsik geratuko. Honentzat Ibarako Aozka dendak eskainitako saski eder bat izango da.

**Harpidedun bakoitzak bozka bakarra eman dezake**  
Aurreko edizioetan egin zen bezala, finalista erabakitzeak garatzen, baldintza batzuk ezarri ditu Argazki Lehiaketaren epaimahaiak. Hala, bozka emanen dutenek Hitzaren harpidedun izan behar dute dertigerrez eta harpidedun bakoitzeko bozka bakarra onaruko da. Bozka emanaren bitartez, harpidedun kodea eman behar du eta zenbakia emanen ez dutenek ezingo dute parte hartu.

**» ARGAZKI FINALISTAK**

» **1. Fernando Rojo (Lizartza).**

«Argazkia New Yorken aterata dago, ilunabarrean Manhattanen errialdetik sortzen duten itzalak ikusgarriak dira.»

» **2. Ibon Aspilkueta (Alegia).**

«Norvegiako Nordkapp lurmuturra da eta bertan gaurerako eguzkia usai ahal izan genuen, hau da, eguzkia horizontean ikusaten ez den garria.»

» **3. Maria Jesus Olano (Tolosa).**

«Argazkia Mozambiken aterata da, hain zuzen inha de Ibo-n, Tanzania-tik gertu dauden irudiak baitoan. Bertako emakume gazteak, behin adin batera iritsita, arpegia zuriztatzen oihututa dute, mushiro-arekin, ikiteko aurkitzeko edertasuna erakutsi asmoz.»

» **4. Oihana Lopetegui.**

«Senegalen izan gura nuen. Horrelako irudiak eguneroko ikusi daitezke, ama haurrari naturaltasun osoz bularra ematen. Bertako jendea benetan inoia da.»

» **5. Iker Eltxeberria Yaza (Tolosa).**

«Argazki hau Torreviejan (Galician) ateratu nuen, lurrikarabaitan, arrantzakia ikusi daiteke bertan.»

» **6. Idoia Lahitaga (Wilabona).**

«Dantakoko herritakoak bostatu ditugu, eta bukatzeko, Berlinera salto egin genuen. Bertan ateratakoa da argazkia, eguzki goxoko arratsalde batean bidetako azken arratsaldean.»

» **7. Ekabele Elizaguirre (Leuburu).**

«Familia eskarizten soldatafite oporak izan dira, gure artean saharako erreleuak kanpamentuetatik etorritako haurrek egon baitira. Argazki hau Donostian dago aterata. Uda igarotzea bi hilabetez gure herrietara etorri diren haur sahararak dira. Desertura itzuli aurretik itxasoa ikusten duten azken aldiz zen honakoa.»

» **8. Nerea Olano de Nicola.**

«Landetan ateratu nuen argazkia hau, loteta ikusi daiteke, erlea gainean duela, lanarekin.»

**» SARIAK**

» **Lehen saria.** Amoroetako Altuenan landetxean, bi pertsonentzako bi gauerako egonaldia.

» **Bigarren saria.** Tolosako Beti Alai jatean bazkaria edo afaria.

» **Hirugarren saria.** Ibarako Aozka dendak eskaintako saski berezia.

Hiru bide izango dira bozka emateko batak, [tolosaldea@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldea@tolosaldeko-hitza.info) helbidean, telefonoz deituta (943 655695) edota egoiztan bertan (Araba etorbidea, Aterki, motzila eta elastiko ederrak eramanago dituzte, saski bozka emateagatik).

Harpidedunek emandako bozka bota ondoren, bertaz, aste-bete barru, datorren hilaren 28an, argitaratuko da argazki irabazlea. Zein duzue zuek gustukoena?

**HARPIDEDUNAK SARITUKO DITU HITZAK**  
Bozka emanen duten harpidedunek ere jasoko dute sariak. **TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA HITZAREN** materiala izango da, hain zuzen ere, aukerari. Hala, bozka emateko dituzten duten guztien artean zuzeneko egingo da. Aterki, motzila eta elastiko ederrak eramanago dituzte, saski bozka emateagatik.

Zuen iritzia emateko bideak errazak dira: emaldez emaldez (tolosaldea@tolosaldeko-hitza.info), telefonoz deituta edota egoiztara bertara hurbilduta. Aukeratzin duzun bidea aukeratu eta, zuen datuak eman behariko dituzte eta harpidedun kodea zehaztu behariko da.

# Haur eta gazteek bete dituzte herriko kaleak, festetako bigarren egunean

**Irura** » Haur eta gazteen eguna izan zen atzokoa; gaur berriz, aipatzekoa da Mari Jose Sardonek egingo duen marka saiakera.

## ESTI EZEIZA

Irurako jaien bigarren egunean, haur eta gazteak izan ziren protagonista. Goizeko bederatzietarako jarri ziren martxan denak eta goizaldera arte ez diragelditu asko eta asko. Goizean, txikienak jolasean zebiltzan bitartean, besteak sokadantza emanaldiarekin hasi ziren. Blusak soinean zituztela, neska nahiz mutilek erakustaldi bikaina eskaini zuten. Bitartean, beroari aurre egiteko, garagardo batzuk hartzeko aprobetxatu zuten batzuek.

Sokadantza amaitu ostean, bereala jarri zituzten mahaiaik eta aulkia San Migel plazan. Bertan, 100 haur inguru bildu ziren bazkaltzera. Paradoxikoa badirudi ere, garai berean, gazteak Zaharren Biltokian bildu ziren, gazte bazkaria egiteko. Arratsaldean, garbilekuko plazan elkartu ziren berriro denak. Han denak ere zili-purdika ibili ziren. Batzuk, gaztelu puzgarrietan, eta besteak, zezenmekanikoan.

## Gaur oraindik gehiago

Nahiko lo egin ostean, 12:30ean emango diete hasiera gaurko ekitaldiei. Garai honetan, Gorritiren abereak ikusgai izango dira San Migel Plazan.



Sokadantzan aritu ziren gazteak eguerdi aldera; plaza jendez bete zen. E. EZEIZA

Arratsaldean, 17:30etik aurrera, Mari Jose Sardonek marka ahalegina egingo du Irurako pilotalekuan. 100 kiloko bolarekin bost minutuko saio bat egingo du, orain arte emakume batek inoiz plazan egin ez duena egiteko asmoarekin. Saiakera, Euskadiko Herri Kirol Federazioak kontrolatuko du eta jaialdian, Txapartegi-Otaegi Mujika-Lasaren aurka ariko dira aizkoran. Asteburuari amaiera emateko, Txinparta trikitilari taldea izango da San Migel Plazan, iluntzea alaitzen.



Dantza saio ederra egin zuten, ondoren sabela ondo asetzeko. E. EZEIZA



Eguraldia bazkaria plazan bertan egitea baimendu zuten. E. EZEIZA



Zaharren Biltokian egin zuten gazte batzuek bazkaria. E. EZEIZA

## Aldaketa ugari ikusi ahal izan ziren atzo, azokako postuetan

**Azoka** » Garagardo azoka zela eta, Triangulo plazan ipini zituzten mahaiaik; berrikuntza ugari ikusi ahal izan ziren.

## PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna Garagardo Azoka dela eta, aldaketaz gainezka suertatu zen. Tokia ere aldatu zen atzo. Zerkausiko postu guztiak Triangulo plazara pasa zituzten, Zerkausian Garagardo Azokaren mahaiaik zeudela eta.

Postuetan ere berrikuntzak ikusi genituen. Barazki mahaie-tan aurtengo lehenengo kanpoko azaloreak ikusi genituen, eta hauekin, babarrun zuriak lekatan, kalabazina, kalabaza, berenjena edo eta eskarola besteen artean. Fruta zerranda oso zabala ere izan zen. Sagar asko, udarea, pikua, gaztaina, matxakanak edo eta aranak izan ziren salgai mahaie-tan.

Perretzeko zerranda ordea ez zen horrenbesterakoa izan. Oraindik ez gara hasi gure mendietan ondo eta beste perretxi-koekin, eta atzo ikusitako gutzia kanpotik ekarritakoa izan zen. Datozen asteetan ziurrena hasiko garela dagoeneko gure perretxi-koekin, eskaintza gora eginez.

Berdura plazan apaingarriko landare asko, pentsamientoa berrikuntza bezala, eta konifera, ziklamena eta azalea nagusi izan zirela.

## » ATZOKO AZOKA

### BERDURA

PLAZA	Mer.	Gares.
Klabelina	2,80	4,00
Erroreroa	4,00	6,00

### BERTAKO PRODUKTUAK

Urra	2,00	3,00
Erremolatxa	1,50	2,00
Intxaurra	2,50	4,00

### PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Baratxuria	1,60	6,00
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00

## BARNE ANTOLAKETAKO ARDURADUNA (08BAA Erreferentzia )

Euskal Editorea SL egoitza nagusia Andoain duen enpresak Barne Antolaketako Arduraduna lanpostua bete behar du aldi baterako. Lanpostuko zeregin nagusia taldeko barne antolaketa kudeatzea eta laneko prozesu eta emaitzen jarraipena egin eta dokumentatzea izango da.

**Eskaintzen da:**

- 18 hilabeteko kontratua.
- Astean 20 orduko lanaldia.
- Berehala hasia.

**Eskatzen da:**

- Prozesuen antolaketaren eta kalitate sistemen inguruko ezagutza izatea.
- Unibertsitate mailako ikasketak izatea kontuan hartuko da.
- Ofimatika programak erabiltzen jakitea.
- Datuak antolatze eta kudeatzeko gaitasuna izatea.
- Komunikaziorako gaitasuna izatea.
- Antzeko lanetan esperientzia izatea kontuan hartuko da.

Lanpostua betetzeko interesa duenak CV eguneratua bidal dezala, erreferentzia zehaztuz, [gizabaliabideak@jarduna.net](mailto:gizabaliabideak@jarduna.net) helbidera, irailaren 26a baino lehen.

eraikitzen  
kilometroko-08 Irura

Irurako  
Ikastola

Jai  
zoriontsuak  
pasa!

ikastolako tabernan elkar ikusiko dugu

San Miguel, 5 • IRURA • Tel.: 943 69 43 74



## Manifestazioa «ilegalizazioak salatzeko»

**TOLOSA** ● Atzo arratsaldean eskualdeko manifestazioa egin zuten herriko kaleetan «EAE-ANV-ren eta EHAKren ilegalizazioak salatzeko», *Salbuespen egoerari Stop. Euskal Herriak autodeterminazioa* loloan. Jende ugari, 250 lagun inguruk, salatu nahi izan zuten «egoera antidemokratikoa» eta «alderdi politikoaren aurka epaia erabaki politiko» izan dela ere aldarrikatu zuten. Halaber, herenegun eskoletan elkarretaratzek egin zituzten. Guztira 100 lagun inguruk hartu zuten parte *ilegalizazio eta sententzien gaitetik gazteria* tin-ko loloan. E. EZEIZA

## Urrezko Aizkolarien ligako saioan Nazabal nagusi

**Tolosa** » Arrospeidek lehen bi probetan «maila ona» erakutsi zuten; Arria V.a ere aritu zen; Nazabalek jarraitzen du lehenengo.

### ERREDAKZIOA

Floren Nazabalek irabazi zuen atzo Tolosako Trianguloan eginitako Urrezko Aizkolarien saioa. Bigarren, berriz, Arrospeide leaburuarra izan zen. Liga honetan sei aizkolarik dabilta eta atzo Nazabal, Arrospeide eta Arria V.a aritu ziren. Bost izaera ezberdinetan aritu behar izan ziren hiru aizkolarik: tartean, kolpetan, erlojuaren aurka, bata zutik eta bestea etzanda. Tartean Inaxio Perurena aritu zen harri-jasotze saioak egiten 200 eta 220 kiloko harriekin.

Arrospeide «ondo» aritu zen lehenengo bi probetan. Kolpeetako proban, aizkolarik 31 kolpetan zaitu zuen pago egurra, Nazabalen moduan. Xabier Orbegozok, Arria V.ak (Errezilgoa), hain zuzen ere, kolpe bat gehiago behar izan zuen lana bukatzeko.

Ondorengo proban, erlojuaren kontra, hain zuzen, Arrospeidek nagusitasuna erakutsi zuen, 38 segundotan ebaki baitzuen egurra. Izan ere, adituek proba hau 40 segundotan egitea denbora ona zela esan zuten. Arriak 48 segundo behar izan zituen, eta Nazabal etxarriarrak, berriz, 46. Hortaz, azken honek hiru puntuak eskuratu zituen, Arrospeide eta Arria V.aren aurretik.

Antolatzaileek, Tolosako Udalarri eta herritarrei eskerrak eman zizkieten bertara joateagatik, eta herri kirolei babesa emateagatik: «Beti izan da ongi hartua herri kirola Tolosan eta eskertzekoa da».



Arrospeidek denboraren aukako proba 38 segundotan egin zuen. ESTI EZEIZA



Arria V.a atzean aita duela, eta Nazabal etxarriarra, atzoko saioan. ESTI EZEIZA



## Pello Olano, lehiaketako irabazlea

**ALTZO** ● Ohitura legez, aurtan atera den *Altzo 2006-2007* urtekarian ere lehiaketa batean parte hartzeko aukera izan dute Altzoko herritarrek, galdera sorta bati erantzun ondoren. Aurtan Pello Olano suertatu da irabazle eta saria Tolosako Bilintx liburudendan nahi duena erosteko 80 euroko txartela izan da. Beraz, «zorianak Pellori eta hurrengoan ere herritar guztiak parte hartzerantz animatu nahi ditugu», dio Altzoko Udalak. HITZA

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Zerbitzaria.** Esperientziadun zerbitzaria behar dugu. Asteleheneretik ostiralera eta igandeak jai. Lanaldi erdia. 943 67 04 46.

### ALOKAIRUA

■ **Lokala.** 34 m<sup>2</sup>-ko lokala. Tolosako Iparragirre auzoan. Argitsua eta egoera onean. 645 71 07 89.

### SALGAI

■ **Txakurrak.** Arratoi-bxakurrak saltzen ditut. Bi hilabeteko hiru dira. 943 690 726.

■ **Salgai.** Peugeot Partner diesel. Egoera onean. Interesatuak deitu: 649 51 09 41.

■ **Etxea.** Intza. Herriko plazan, 300 urteko etxea garajearekin bertako eran sendotuz eraberritu eta estreinatzekoa. Modu onean salgai, ezinduentzako egokitua, landetxea jartzeko aukera. 628 030 727 / 646 111 485 / 609 218 341 / 948 610 639.

■ **Etxebizitza.** Tolosaldeko alde zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuak deitu: 657 23 00 11 / 634 91 94 82.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tososaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tososaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tososaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tososaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@tososaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tososaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tososaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tososaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tososaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Kirolak

■ **Leitza.** Amazabal pilotalekuan jokatu dira Leitzako IV. Pilota Txapelketako finalak. Binakako pilota txapelketaren bost partida jokatu dira 10:00etatik aurrera: alebinen, infantilen, kadeteen, jubenen eta nagusien mailako finalak.

■ **Leitza.** Mendi Bizikleta Martxa eta maratoi erdia, Naturbideen Europako Egunarekin bat eginez antolatuta. Maratoi erdiak irteera Erreka sagardotegian izango du 09:30ean. Mendi bizikleta martxan, berriz, Andoaindik 10:00etan abiatuko dira eta Leitzatik 11:30ean.

### Deialdiak

■ **Asteasu.** Azoka Eguna goiz eta arratsalde: 100 ganadu burutik gora, 60 postu artisauntza eta elikagaiak, mikologia erakusketa eta lehiaketa eta baserriko produktua, joaldunak eta trikitilariak, 11:30ean esne behien lehiaketa, perretxiu saski ederrenaren lehiaketa,...

■ **Orendain.** Garmendiaren omezez Txindokira mendi irteera, ondoren bere oroigarriaren ondoan ekitaldi xume bat. 08:00etan Larraizko langan (Txindokira joko denarentzat) edo 09:00etatik aurreratik Orendaindik oinez oroigarriaraino. 11:00etan oroigarriaren ekitaldia.

■ **Tolosa.** X. Garagardo Festaren barruan, trizikloak eta haur tailerrak 17:00etan, xake erraldoia 18:00etan eta txalaparta 20:00etan.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

#### GAUR

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.

■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

#### BIHAR

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.



## Bremengo musikariak Tolosan

**TOLOSA** • Tolosako Leidor antzokian atzo arratsaldean bertaratu zirenek Bremengo musikarien antzerkiak gozatu ahal izan zuten. Saxofoia eta hainbat musika tresna entzun ahal izan ziren bertan, eta nola ez, umoreari ere lekua egin zioten Bremengo musikariek. Ume handiek garai bateko teibestako marrazki bizidunak izango zituzten gogoan, aktoreen artean

oilarra, astoa, txakurra eta katua atera zirenean. Grimm anaien ipuinean oinarritutako antzezlanak haur eta gaztetxoentzat zen proposa baina Leidorren haur handiak ere izan ziren atzo. Tartearen poliziak ere izan ziren, Bremengo musikariek nahastuta, eta nola ez, garailu musikariak atera ziren. ESTI ZEIZA

## A Agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**agurrak**

### EGUR-LANKETA

**Hasiera:** Urriak 6  
**Ordutegia:** Astelehena 15:00etatik 18:00etara edo 18:00etatik 21:00etara  
**Urteko kuota:** 140 euro

**Hasiera:** Irailak 28  
**Urteko kuota:** 50 euro (haurren kasuan materiala barne)



### PINTURA

**Ordutegia:**  
**Helduak:** Asteazkena : 16:00 - 18:00 / 18:00 - 20:00  
**Haurrak:** Larrea 20  
Asteartea : 17:15 - 18:15 / 18:15 - 19:15  
Osteguna : 16:15 - 17:15 / 17:15 - 18:15 / 18:15 - 19:15

## ZAHARBERRITZEA ETA ARTE APLIKATUAK

**Hasiera:** Urriak 24 **Ordutegia:** Asteazkena 10:00etatik 12:30era  
**Urteko kuota:** 60 euro 15:00etatik 17:00etara

### IZEN-EMATEAK :

**EPEA:** Urriak 31 **Non:** 943- 691655 edo 943-692100 telefonoetara deituz.

**Oharra:** Ikastaroetan parte hartzen duten ikasleentzat Sacem-go tailerrak zabalik egongo dira uneoro, baina ikastarorik ez dagoen egunetan ere. Haurren ikastaroak Larrea 20n izango dira.



• iturgintza • berokuntza  
• aire egokitu • gasa  
• inst. industrialak

Jai zorionsuak opa dizkizue irurar guztiei!

Kale Nagusia, 30 • 20271 IRURA • Tel/faxa: 943693352 • mug.:656416808